

Aulestia

Lehenago baten idatzi neban ANAITASUNA-n, ez dogula kursillorik izan aspaldiko urte batzuetan. Zorionez, aurten izan ditugu irakastaldiok gure errian bere. "Servicio de Extensión Agraria"-ko gizonak ahalegina egin dabe guri irakasteko, guk geuk ikasteko zaletasun aundirik euki ezarraren bere. Guztiok nahi dogu baserri oba bat, guztiok gura dogu gure baserriak izarretaraino igonda ikusi. Zaina zer egiten dogu horretarako? Zihur egon geintekoz, geuk ahalegin pixka bat egiten ez badogu, ez deuskuela dana eginda eskura emongo.

Sarritan esaten dogu: Guk zer egin geinke ba, ahal dogun guztia eginda bere? Egia da, ahalmen aundirik ez doguna. Baina esan beharra dago, tamalez ez dogula egiten ahal dogunik be; eta, honela, gure ahalmena, gure gizatasuna, gure personalidadea behera doa, atzeraka goaz, geroago ta azpirago gagoz; beraz*, gaur atzo baino gaxago, bihar gaur baino gaxago gure buruak jasotea.

Gure aldetik ba dago zerbait, garrantzi aundiko zerbait, gure burua jasoteko bide bakarra dana; ikasi, saiatu ikasten. Horretarako dira baserri ikasketak. Neguan izaten dira gehienbat, eta iluntze aldean, bakoitzak tarte pixka bat artu ahal daian. Hala ta be, nahiko pobrea izan da, gure erri honek kursilloei egin deuten abegia: gehien gehien ogetamarren bat ikasle izan gara. Ez dot uste Aulestiarako asko danik, ehun ta ogeiren bat baserri dituala kontuan arturik.

GONTZOLAITARRA

Bilbo

San Joseetako jaiak Deustun

Deustu antzina erri bat zan, bere buruaren jabe. Gero, Bilbok iruntsi eban, bere auzo bat bihurtzen ebalarik.

Orain Deustuk kontzejal bat dauka Bilboko Aiantamentuan. Bardin Begoñak eta beste auzoak. Baina Bilbok zentralismoz jokutzen dau, eta hau jaietan ikusten da argi: auzoetako jaiak euren nortasuna, euren kutsua galtzen doaz, osorik galdu ez badabe.

Lehen, entzute aundikoak ziran Deustuko San Joseak; azken urteotan, eta batez bere aurten, ezerezean gelditu dira.

Non dagoz bolanderak, txistulariak, barrakak, dantzak? Ez aureskurik, ez ezelango jai kutsurik.

Baina beste itaun bat be beharrezkoa dogu: Non dagoz Deustu errepresentatzen daben kontzejalak?

ANAITASUNA-k 200 arpidedun inguru daukaz Deustun; eta, seguru asko, itaun honek berberok egiten ditue.

Eta Deustuko kronika labur hau amaitu baino lehen, beste hau be esan beharrean aurkitzen naiz: Deustuko gazteak, San Jose egunerako, euskal abeslari barrien jai bat antolatu nahi izan eban Canciller zinetokian; baina bertako ugazabak, arrizkugarria zala ta, ezetza emon utsen.

Abuztuko jaiak

Ze kutsu eukiko dabe aurten Bilboko abuztuko jaiak? Joan dan urtean, atxakia bat edo bestegaitik, ez genduan euki ez bertolaririk, ez txistulari alerderik, ez orfeoi ta dantzari jaialdirik.

Gure folklore taldeak eta Aiantamentuko jaien antolatuzaileak kontuan euki behar leukee erria. Politikaren gainetik gure erriaren nortasunari eutsi behar leuskioe.

Euskalduntasunak politikaren gainetik egon behar leuke, erri osoarena dalako.

Horregaitik, hemendik eskatzen dogu, abuztuko jaiak euskal kutsuzkoak izan daitezala, hori egitea beharrezkoa da ta.

GEREÑOTARRA

Igorreta

Oromiño auzuneko jaiak gainean daukaguz, apirilaren 25-ean San Markos bertako patroiarren eguna ospatzen da ta.

Hori dala ta, Igorretarrak il honen 19-rako antolatu dabe Kofradi Eguna, euren arteko artuemon eguna. Goizean goiz biribilketak eta bolandera otsak. Gero Mezea eta beronen ostein, Kofradi bakoitzaren izenean, dantza talde batek dantzan egingo dau: guztitara sei Kofradi dira. Ondoren, aizkolariak, korrikalariak, arrijasotzaileak, eta abar.

Arratsaldean, Kofradien arteko soka-tira txapelketa; eta antzerki bat edo be ikusiko dozue.

2 ANAITASUNA

Durango

Tabira Mendi Alkartekoak apirilaren 19-rako dauke aukeratuta euren ileroko urteera, ta Leungane mendira izango da.

— o —

Bizkaiko Diputazioak il honetan erabagiatko gauzen artean, honek agertzen dira:

673.000 peseta emon, Durangotik Orozketara ta Igorretatik Goiuriara dagozan bideak konpontzeko.

210.000 peseta emon, Durangoko bonbero etxean egingako lanak ordaintzeko.

— o —

Durangoko Txirrindulari Alkartearen lehendakari dan Kosme Barrutiak bere egunean Aiantamentuari egindako diru laguntasun eskariari, 15.000 peseta emonaz erantzun eutsoen. Diru honek laguntza bat izan ziran, edurragaitik egin barik itxitako "Urkiolarako Igoerea" antolatuteko.

— o —

Familiatako buruen alkatte bat sortzeko asmoagaz, lanean asi jakuz batzuek errian. Benetan garrantzi aundiko gauzea erriarentzat; baina danon laguntasuna ta indarra behar dauana, errepresentatiboa izan daiten.

— o —

Behartsuei laguntzeko J.A.E.D. alkatteak 996.000 peseta emon eban igazko urtean. Sortu zanetik hona, orain sei urte dirala, 5 milioitik gora joan dira euren eskuetatik.

Zapoerri

Durangon euskaldunak ez dabe, edo ez dogu izan Aste Santuko liturgi elizkizunik. Bost edo sei tokitan gutxienez izan dira elizkizun horreek; baina danak erdaldunentzat.

Durango, kristinau izateko, Aste Santuan eta urteko astegun guztietan, erdaldun izan behar da, antza.

Durangoko Bat

Elgoibar

"Lurgabe" abeslari irukoteak laga egin deutso abes-teari. Otsailaren* 17-an abestu eben azkenengoz, Odeon antzokian. Erriko laguntzarik ez ei dauke, bertan esan ebeenez.

— o —

Bi ilabete eta gehiagoan euki doguz euskal ikastaldiak, ikastolaren ardurapean eratuak. Bertan izan doguz eibartar irakasle jatorrak. Baita San Martin eta Torrealdei jaunen itzaldiak bere izan doguz ikastaroan zehar. Eskerrik asko!

— o —

Ba dira Euskalerrian hainbat lantegi, dirua ugari irabazten dabenak, eta Euskalerrian dagozanik bere konturaten ez diranak. Erriaren lepotik aberastu, eta erriko gauzei ez lagundu. Baina danak ez dira bardin. Hona hemen "Danobat Eguzki"-k artu dauan erabagia: langile bakoitzeko urtean behin 175 peseta emon Elgoibarko euskal irakas-kintzarako. Guztitara 250 langile ditu.

Debarako be erabagi bardina artu dau, eta 175 peseta langileko eta urteko emongo ditu bertako ikastolarako. Azkoitiko ikastolari be neurri berean lagunduko deutso. Erakutsi ederra, inok jarraitu nahi badeutso.

Marisabel

Galdakano

U.E.E. lantegia, Galdakanoko erri barruan dagoan zaharretarikoa da.

Bertako langileengandik dakigunetik, fabrika honetan, duda barik, inguruko fabriketan baino aloger motelagoa jasotzen dabe langile jendeak. Bestaldetik, arriskua, nahiz eta arduraz ibili ezker ez egon, ez da txantxetako, erio-tzerakoa baino, bertan dinamitea erabilten baita*.

Hau dala ta, langileak aloger aundiagoak eskatu ditue ta, azkenean, euren eskubideei indar gehiago egiteko, lana gutxiagotu egin dabe.

Hau ikusirik, lantegiko buruak probintzia honetako "Ministerio de Trabajo"-ko ordezkariengana deitu dabe, "disminución voluntaria y continuada del rendimiento normal de trabajo" egin dala esanaz. Orduan, Ministerio de Trabajo-koak "legea ausi" dala erantzun dabe. Erantzun hau eta karta bat berorrekin batera bidaldu deutseez U.E.E.-ko nagusiak langile batzuei, Lan Kontratuko Legearen 77 gn. artikularen kontra jokatu daben ezker, egun biko alogera kentzen jakela esanaz, eta zigor aundiagoak etorri eitekioezala amenazatuaz.

Langileak, oster, alogerak jasotzeko eskatuaz, euren jokabidea ez dala dinoe, esijitzen dan eginkizunaren azpitikoa, "mínimo rendimiento"-koa baino.

mundu biribila

VIETNAM, LAOS ETA ...

1954-ko uztailean*, Frantziaren ordezkaritza Giap generalaren artean, Ginebran izenpetu zuen bakeuneak, zati bitan banandu eban Vietnam, 17 gn. paraleloa erdian zalarik: Iparra ta Egoa. Batasuna 1956-an lortzeko zan, auteskunde* orokarren* ondoren. Bao Dai enperadoreak ez zituan onartu Ginebrako itunbenak*; eta, Vietminh eta Saigoneko gidariaren arteko alkar ulertze batera eltzea posible ezin izanik, Iparra Errepublikak Demokratiku bihurtu zan, Ipar Vietnameko 29 errialde ta Vietnam Erdiko 4 artuaz. Errepublikak Demokratikuko Gobernuak Rusiak eta Txina errikoiak berehala* errekonozidu eben.

Bao Dai, Ego Vietnamekin gelditu zan; baina, 1955-eko urrian, referendum baten bitartez, Gobernutik bota egin eben. Diem lehendakariak, Bao Dai-ren lehen ministro izanik, Errepublikak proklamatu eban; baina, garbi agiri zana, Estadu Bauen laguntza osoarekin eraikitako benetako diktadura bat zan. Diem-en erregimena, alde guztietatik eraso ta bere aliadu amerikarrak "in extremis" bertan behera utzia, 1963-ko azilean* jausi zan, militar jaikitze batek eraginda. Matxinada batzuen ostean, 1965-eko ekainaren* 16-an, Van Thieu ta Kao Ky generalak egin ziran Estaduaren buru. Harrezkero, biak ditugu Vietnamen manejatzaile, Estadu Batuen morroi legez.

Baina, gaur egun ba da Ego Vietnamen beste Gobernu bat: Gobernu Iraultzaile* Probisionala, Askatasunerako Nazino Frentea eratua. Askatasunerako Nazino Frentea, 1960-an burutu zan eta zenbait* organizazio militar eta politikuk osotuten dabe: Vietcong, Alderdi Sozialista Erradikala, Alderdi Demokrata, Mendigainen Askatasunerako Mugimentua, Alderdi Iraultzaile Errikoiak, eta abar. Vietcong, gerrillero iraultzaile komunisten organizazioa da: 120 mila gudari inguru ditu eta geroago ta indartsuago doa. Askatasunerako Nazino Frentea amerikar esku-sartzearen

amaia ta Vietnameko arazoak vietnamdarrak eurak konpontzea eskatzen dau. Argi dago, Saigoneko militar gidariei Amerikak lagunduko ez baleutse, Ego Vietnameko Gobernu ustela erremedio barik jausiko litzakela. Hanoi-ko Gobernuak Askatasunerako Nazino Frenteari laguntzen deutso, amerikar inperialisten eraso genozidaren aurkako burruka latzean; baina, denbora berean eta horregaitik, Ipar Vietnamek Estadu Batuen bonbardeoak jaso behar izaten ditu.

Joan diran 20 urte baino gehiagoan, Vietnamek ez dau ezagutu gudua baino besterik (japoitar, frantses eta amerikarrekin). Bestalde, Pariseko alkarrizketetan (Ipar Vietnam eta Askatasunerako Nazino Frentea alde batetik, eta Estadu Batuk eta Ego Vietnam bestetik) ez da agertzen aurrera biderik.

Hala ta guztiz be, gauzak ez dira honetan amaitzen, ta hor dago Laos. Laoseko gudua Vietnamekoa baino zaharra goa da; eta biak gudu bakar bat dirala esan daiteke, Laotetik Vietnamera pasatu baitzan*. Hau da gertatzen dana: alde batetik, indar errikoiak (komunista buruzagitzarekin) Vietnam biak ezeze Indotxina guztia be batzeko asmotan dabilta; eta bestetik, Estadu Batuk, gobernu faltsuei eutsiaz, batasun hori galerazo nahirik.

Propaganda gutxiko gudua izan da Laosekoa; baina, Pathet Lao-ren (Laos Askatua, askatasun aurrelarirako alderdiaren esku armatua) gudariak Jarros-eko zelaia artu ezkerotzik, gudua goritu egin da. Estadu Batuk, ohi dabenaz, Gobernu Zentralaren aldetik dagoz, eta euren B-52 bonbarderoak Pathet Laoren aurka gogor ari* dira. Eginak egin, laguntza hau ez dala nahikoa dirudi. Ta hona hemen Ipar Amerikaren buruauste politikua: Laosen sartu ala ez? Ze ondorio etorriko litzake, jokabide bat edo beste artzetik? Pentagonoko gizonak erabagiko dabe.

A. Muniategi

Ekonomia aurreratu baten oinarriak

Gizona mundu osoaren parte bat da, eta mundu horren lege batzuen barruan bizi da. Hala ta bere, gizonak aldatu leikez legez apur bat. Edo, obeto esanda, berak nahi dauan bidera zuzendu leikez, baina ez edozelan. Zuzenketa hori egiteko, ondo ezagutu behar ditu legez eta sustraieraraino sakondu. Seguru jakin behar dau, aukeraturiko elburua* posible dala eta bertara eltzeko medioak egokiak dirala.

Ekonomian bere, berberau jazoten da. Horregaitik, erri aurreratuak ardura eta arreta aundiagaz artzen ditue ekonomia neurriak, epe laburrekoak eta behin-behinekoak izan arren. Eta ardura hau askoz aundiagoa izaten da, ekonomia osoaren oinarriak eurak jokoan dabiltzanean.

Prezioak gora igoten dabenean, langile klasea estu aurkitzen da. Orduan, beharrian biologikak emoten daben indar guztiagaz, langile klasea galdutako egoeraren bila abiatzen da, elburu hori lortzeko biderik zuzenena artuaz. Kapitalista sistema batean, patrioaren bihotza jo nahirik, mesedezko eskabideak egitea biderik onena dala sinestea lelokeria litzake gure denboretan. Lehenengo, esperientziak erakusten deuskulako; eta bigarren, gaurko enpresetan ez dalako kapitalista inondik agertzen, alkarre guztiz inperial (Sociedad Anónima) bategaz tratatzen baitabe* langileak. S.A. honeei, malkoak ez deutsee ezer esaten; produzinoaren beharuntzeak, barriz, min aundia egiten deutse. Guzti hau, honezkero, ondo ikasia dauka langile klaseak.

Horregaitik, galerazota egon arren, huelgak ugaritzen joan dira azken ilabete honeetan; eta, prezioen gorazko abiadea ezagugarritzat arturik, udara orduko, huelga askoz gehiago ikusiko doguzala aurreratu geinke bildur barik.

Enpresario askoren aldetik, langileen eskabideei baie-tza emoteko tendentzia ikusten da, huelgea gogortasunez planteatzen danean. Esandakoari arrazoia emotera dator Langintzako Ministroa deklarazio honeekaz:

"No esperen los empresarios españoles que el Gobierno les va a sacar las castañas del fuego en la negociación de los convenios colectivos en que exista coacción. El empresario no puede negociar cuando haya coacción y por tal puede entenderse cuando unos obreros se sientan en la mesa de negociaciones y los restantes lo hacen en la explanada de la fábrica. Sé que en algunos medios empresariales se piensa que es preferible dar un 4 % a los obreros (por encima del tope aconsejado por el Gobierno) y ahorrarse 15 días de huelga, pero esto es equivocado".

Geroago eta gehiago Gobernuak zain ego behar dau, enpresarioa kikildu ez daiten. Huelgak, galerazota dagozan lekuetan, baimen osoa dauketan baino bildurgarriagoak dira. Izan be, leku hareetan enpresarioak ez dira euren uretan aurkitzen: ur epelak ur otzetako arrainari balio ez deutson legez, halantxe burruka ezak be ez deutso kapitalismoari balio, burruka hori behar dau ta, produzino bideak obatzeko.

Bestalde, huelgak kontrol bakoak dira, planifikazio bakoak esan geinke. Orduan, planifikatua izan gura dauan ekonomia batean, huelgak elementu nahastaila batek legez jokutzen dabe. Kapitalismo barruan jokatuaz, aurreratuen aurkitzen diran Estaduak, kasualidadez ote dauke sindikalismo libre bat? Ez horixe! Posibilitadaren zientzian, jazoera baten alde kasurik gehienak jartzen diranean, jazoera edo jokabide horrek legearen indarra dauka. Horregaitik, produzinoan garrantzitsuen dan taldea (langileak) ekonomia-aren kontroletik bazterten bada, bere eritxia (ez bakarrik alogeren arloan) entzuten ez bada, utsune aundia agertuko da sistema barruan.

Orain, bizitza honetan, ekonomian be bide asko artu leitekez, beste arlo askotan bezala. Bat Portugalek artu eban: berrogei urteko geldituena, sindikato barik, huelga barik, inflazio barik eta desarroilo barik. Gaur, orain dala berrogei urte legez, euria danean, Portugalen ortozik* ikusiko dozuz ume, gizon eta emakumeak bideetatik zehar.

Beste bidea: askatu desarroilo bidean aurrerantza bultzatzen daben indarrak. Lehenengo bideagaz, langile klasea desegin egiten da; bigarrenagaz, barriz, bere integrazioa bilatzen da. Bigarren bide honek bere arriskuak ditu; baina, kondairaren aurrean, lehenengo bidea baino apur bat garbiago geratzen da behinik behin.

"Correo Español"-ek argi ta garbi esan euskun, bide biotarik bat artu behar dogula: Greziako Koronaren bidea edo Europako bidea. Hauxe da Espainiako agintariak erabagi behar dabena; eta, antza, eztabaida gorrian dago auzia, danak eritzi batekoak ez dira ta. Europaren kontrako amorru aundia erakutsi ondoren, hor agertu dira batzuek, europeismoa alde batera ixtea obe dala esaka, eta Ameriketako desarroilo bako nazinoei emongo jaken laguntasuna lortzea komenigarriago litzakela, laguntza horrek ez baitu* Merkatu Batuaren kondizino politikuak eskatzen.

Anton

ANAITASUNA 3

LIBURU BARRIAK

"IPAR EUSKAL ERRIA"

"Bizkaiko dantzak"

Euskal aldizkariaren artean, bat egoan kulturaren goi mailakoa zana: JAKIN. Baina debekatua izan zan.

Orain, eta barriro baimena lortzen dauan bitartean, bere arpedunekin artuemonetan jarraitzeko, liburuak argitaratuko ditu, JAKIN sorta edo kolezinoa osotuz.

Lehenengo tomoa, lan honen buruan ipini dogun titulorekin zabaldu barria da. Bere balioa aztertu daigun astiro.

Idazleen aldetik, mugaz bestaldeko idazle ezagun asko aurkituko dozuez lan honetan: Piarres Larzabal, Jean Haritschelhar, Ramuntxo Camblong, Jean Louis Davant, Dominique Peillen, Daniel Landart, Piarres Xarritton, Janbattitt Dirassar. Baionako HERRIA euskaldun asterokoa artzen dozuenok, izen honeek ezagun dituzue.

Euskeraren aldetik, euskera batuan idatzia dago eta euskeraz irakurten apur bat ohitua danak, erraz ulertuko ditu beste aldeko gure anai euskaldun honen lanak.

Eta azkenerako, gaia, mamina itxi dogu.

"Ipar Euskal Herria". Zein titulo ederra!

Zer dakizu zuk, irakurle, Ipar Euskalerrinari buruz? Eskolan, kolejoan, Ebroaren afluenteak irakatsi eutsuezan, eta Andaluziako mendiak, eta Extremadurako errien izenak. Baina hemendik ez urrun, Bidasoa nahiz Pireneoak pasatuta, mendi ta itsasertz zoragarri batzuen inguruetan, euren izenak inoiz irakatsi ez deusuezan erri ta uri eder batzuek dagoz, gureak legez euskaldunak diranak.

Liburu honek, utsune negargarri hau bete nahiez, mugaz bestaldeko euskaldunen barri emoten deusku: ekonomian, soziologian, literaturan, euskeraren irakaskintzan.

Zatika dator, idazle bakoitzak gai bat erabiltzen dauala. Honek, alde batetik, irakurteko erraztasuna dakar, eta bestetik, ezbardintasunaren atsegina ta idazle bakoitzaren idaztankera ezagutzeko aukera.

Liburu osoa interesgarria izanik, lan bi batez bere aipatuko ditugu: Olasoren "Kontzientziaren eboluzinoa" eta Camblong-en "Gure ekonomiaren hiru pondu".

ANAITASUNA-ren irakurleak, liburu honek irakurtea merezi dau. Gehiago oraindino, euskaldun bakoitzak irakurri egin behar leuke liburu hau.

JAKIN-erako suskruzinoa urtero 100 peseta kostatzen da; eta, "Ipar Euskal Herria" liburua bakarrik erosi nahi badozue, bere prezioa 50 peseta da. Eskariak zuzenbide honetara: JAKIN, Santuario de Aránzazu, Oñate (Guipúzcoa).

Gure zorionik beroenak Joan Mari Torrealdai-ri, JAKIN hain ondo zuzentzen dakialako, eta liburu honeri egin deuston itzaurre ederragaitik.

Xabier Gereño

Arratiarrak!, ez da nahikoa

Arratiako aizeak bizkortzen asi dirala uste dot. Baina apur bat oker ote dabilzan bere sumatzen da.

Zeanurin eta Gaztelu Elexabeitian euskal jai eder batzuek antolatu dabez gazteak; eta, eurok ikusi ondoren, dei bat egitera noa: euskerea ez dala jaietan erakusteko bakarrik, eta gero kaleko bizitzan gordeta eukiteko. Izkuntza, gizarteko beharizan bat da; ta ez dogu ontzi baten gordeta euki behar, noizean behin zabaltzeko.

Jai honeetan parte artu eben gazteak sarri askotan euren artean erderaz egiten ikusten doguz; eta jai horreetan be erderaz egiten eben askotan, jai barruan parte artu orduan izan ezik. Kontuz zer egiten dogunagaz.

Areatzan* alfabetatze irakastaldiak asi ziran eta ederto doaz, ikasle asko joaten dira ta; baina kalean ia sekula be ez dogu entzuten gazte horreen artean euskeraz berba egiten. Noiz arte gordeko dozue euskerea?

Soinulari

Argia ikusi dau liburu barri batek, Etxebarria jaunaren liburuak: Bizkaiko Dantzak.

Liburu hau agiri bikain bat da gaurko eta baita etorkizunerako be. Bizkaiko dantzak zelan dantzatu behar diran esaten dau liburu barri honek; eta hori, garbi, txukun eta zintzotasun guztiagaz. Horretarako, egilea 15 urtean ibili da, alde batetik bestera, dantzen puntu guztiak aztertzen. Dantzen sorlekura joan da, eta bertan ikusi eta ikasi ditu.

Orain ehun urte, Berrizko dantzak gaur bezala dantzatzan ziran. Dantzari zaharren oroimenean, bizi bizirik dagoz oraindino gaurko dantza guztiak: dantzari horreen oroimenetik artu eta liburu honetara aldatuak izan dira zehaztasun guztiagaz.

Liburuan, dantzen agerkerak obeto aditzeko, geometriazko irudiak ezarri dira, eta leku-aldaketak seinale batzuek azaltzen dira. Gainera, beste irudi txorta bat be ba dauka liburuak. Irudi guztiok Unzalu jaunak egin ditu.

Egileak, Tabira inguruetako dantzak eta Berrizkoak batez bere aztertu ditu.

Liburu hau, gogo setatsu* baten egintza da. Beraz, euskaldun jator batena.

Larrea

ABESLARI ETA ABESTALDIAK(1)

Mito aldia igarotzen doa

Mittoa indar aundi bat da gure gizartean, politika-gizon, eliz nahiz arte-gizon batzuegan jartzen dogunean. Indar hori erabili leiteke gizartearan onerako, mito bihurtu diran gizon horreek nahi izan ezker eta kualidadeak euki ezker.

Gure erriak, berebiziko egoera baten dagoalako, behingoan mitifikatzen ditu persona batzuek. Mitifikatze hori, gehienetan, norberak egin eta esan ezinari erantzun bat izaten da. Abeslariaren "exitoa" ez datza* ez txalo, ez gorespen eta ez disko salketan; benetako exitoa beste honetan datza: entzule ta abeslariaren arteko alkar ulertze batean. Entzuleak, egin eta esan ezin dabena, neurri baten behintzat, abeslariaren ahotan aurkitzen dabe. Hortik sortzen da alkar ulertze bat eta mitoaren asiera; geroago eta gehiago erantzun, abestien bidez, entzuleak daukezan arazoei, alkar ulertze hori aundiagoa izango da.

Oraintsu asi da musikaren balorea gehiago onartzen eta zabaltzen; baina, orain urte bi edo iru (entzulerik gehienentzat, ez "elite musikal" batentzat), nahikoa zan kitarra bat artu eta erri-arazo bat sentimentuagaz agertu; abeskera nahiz kitarra jokera, balio utsak legez, ez ziran gogoan artzen.

Hortik dator abeslari batzuen gorestea eta beste batzuen baztertea; baina, nire ustez, elduko gara eldu behar dogun neurri, bakoitzari berea emonaz.

Abeslariaren mitoa uste dot apurtzen joango dala, eta abeslariaren balioa tente geratuko dala. Baina erri batek, mito edo itxaropenaren ezaugarri batzuek behar ditu. Orduan egin behar doguna da, gure erriaren mito egarri hori beste ekintza-gizon batzuegan jarri, abeslariaren lana baino sakonagoa aurrera daroen gizonengan.

Eta gaurkoz nahikoa da. Baina ez ahaztu, benetako abeslari batzuek musikarik ez dakiela.

Kitarra, euren bizitza;
notak, erri-arazoak;
akordeak, buru-bihozkadak;
ritmoa, ekintza.
Eurak asitako bidea,
izerdiz sortutako baratza...
Erriaren gaua laburtzearren,
egunsentiko argia
ikusi ez dabena.
Eurak ziran,
eurak dira
benetako abeslariak.

Bittor Egurrola

Kristinautasunaren monopolioa?

Igande goiz baten, autostop eginguran gengozala, gizon bat gelditu jakun Simca bategaz. Barruan sartuta, euskal abestiak kantatzen asi ginan. Gizonak, izketan jakin ezarren, euskeraz ulertzen ebala esan euskun. Euskal abestiak asko gustatzen jakozala; baina abesti bat, Xabier Leteren "Maitez galdezka", ez ebala bapere atsegin. (Gizon hareri, abade antza artzen asi ginan).

Leteren abestietatik gehien gustatzen jakuna haxe zala esan geuntsanean, gizonak erdi-aserre erantzun euskun, abesti hori Jaungoikoaren kontrakoa dala. Bere eritxiz, Xabier Lete "anticristiano" dala. Eta berari ez ukatzeko, teologia ikasitakoa zala ta.

Nahiz eta guk teologia ez ikasi —esan geuntsan gizonari— geure eritxi personala daukagu abesti horretaz; eta jakin gura geunke, Xabier Lete zegaitik dan "anticristiano", ikusten eta sentitzen dauana kantatzen daualako.

Eta berak erantzun: Aberats batek pobre bateri 3.000 peseta emoten badeutsoz, ondo egina dala esango dot; baina gizon batek bestea ilten badau, txarto dagoala esango dot.

Abesti hori ontzat artzen dogunok, ea "anticristiano" ote garean galdetu geuntsan.

Orduan, gizona zarataka asi zan, bere senetik urtenda legez. Laga bolantea, eskuak jaso eta aldarrika esan euskun, berari holakorik ez esateko, soporta ezin eikela ta.

Gure erantzuna: Argi ikusten doguna azaltzen jarraitu dogu.

Hau esan ondoren, automobiletik jaisteko esan euskun eta bide gogorrean itxi ginduzan. Bakar bakarrik geratu ginan. Han ez egoan ez etxerik ez trafikorik.

Jazoera honen aurrean, itaun bat egiten deutsegu hau irakurten dabenei: Jokaera hau, "kristinau testigantza" ote da?

Ondarroatar Gazte Bi

Jakin dan legez, Bizkaian Arzizpreste mota berezi bat sortua izan da: artzaintza arazoetarako Arzizprestea; eta kargu barri hori bete behar dabean abadeak elezino bidez ukeratuak izan dira. Honako honeek lantzean behin Goztainarekin alkartzan dira. Joan dan martxoan izandako batzar baten ondoren, agiri bat argitaratu dabe; ta, beste zenbait* gauza interesgarriren artean, hauxe dinoe irakas-kintzari buruz:

"Un capítulo especial —no por ponerlo el último es el menos importante— de nuestra pastoral escolar es el planteamiento serio de los centros escolares bilingües. Creemos que, a causa de suspicacias políticas, dificultades legales, etc., hemos abandonado un terreno importante de acción eclesial, que está siendo ocupado por otros. Aunque sea función subsidiaria, el fomento de la lengua y cultura del pueblo vasco corresponde a la Iglesia con toda urgencia. Consideramos pastoralmente necesario el apoyo a todas las iniciativas culturales en este punto y la promoción de centros donde se vea conveniente; se trataría principalmente de amparar el derecho de los padres de familia que acuden a la Iglesia en llamada de auxilio. Podría pensarse en algo semejante a la Federación de Ikastolas de Guipúzcoa, aunque respetando la peculiaridad de nuestra diócesis. Este apoyo debe basarse en cuatro condiciones indispensables: confesionalidad de los centros, legalización, apoliticidad absoluta y autonomía económica y administrativa de los mismos.

Este empeño exige un esfuerzo de preparación de maestros o de recuperación de otros vocacionados para esta tarea. La escuela de Magisterio de la Iglesia debe contribuir a la preparación de personal idóneo. Hay que pensar en alguna residencia para chicas de la Zona Vasca que estudian magisterio en Bilbao, residencia que podría ser centro de irradiación de tales esfuerzos. Conviene también conectar rápidamente con religiosos y religiosas que puedan colaborar en sus propios centros, sitios en zona de expresión vasca o en otros."

(1970-eko Martxoaren 3-eko batzarraren agiritik)

BIDE ESTUAK

JAINKOA GAUR. Lazkanoko beneditano batzuek egindako liburu baten izena dogu hau. Joan dan udan agindu euskuen liburua. Berandu argitaratzen zala ta, gure itaunari erdi-erantzun bat emon eutsoen: "Nagusiak... zensura... fraseren bat zuzentzeko... erriarentzako liburua izateko atrebidu xamarra..."

Harrezkero, liburuaren idazleetako batzuek gora-behera zerbait izan dabela ta, etsi* egin genduan liburua eskuratzear. Baina hona hemen, azken "Jaunaren Deia"-n, liburuaren barri emoten deuskue eta, argitaratua balitz bezala.

Bila joatean, barriz: Oraindino ez dala atera. Zegaitik? Barriro be, erdizka erantzun: "Nagusiak... inprentan asia... gero atzera gelditu ezaoo..."

Zer dogu guzti hau? Vaticano Irugarrena behar ote dogu? Ramon Saizarbitoriak dimoana bizirik oraindik? "Praileak...", esan dizudan bezala, ez zuen konprentitu nahi izan. Beste gusto batzuek behar nituen izan. Maleablea behar nuen izan..." (R. Saizarbitoria, Egunero hasten delako, 23 gn. orrialdean).

Ekintza baten eskaria

Urtero legez, aurtan bere izan ditugu Garizumako Gogo Jardunak. Gazteok, neska ta mutil, alkarregaz euki doguz.

Barinagako parroko dan Benito Jauna euki dogu izlari. Benetan gai egoki ta sakonak erabili ditu. Gure eginbeharra zein dan guztiz ondo azaldu deusku, guztiok erraz ulertzeko moduan azaldu bere.

Alkarrenganako maitasuna, lagun urkoari begira bizi izatea: horixe izan da gehien aipatu dauan gaia.

Aulestiako gazteak ez gara atzean geldituko, gauza honek ez jakitegaitik. Egiten ez badoguz, geuk gura ez dogulako izango da.

Ez litzake txarto etorriko, noizean behin, gauza honek barriztatzeko, gazteok alkartutea, ilean behin edo, esate baterako. Beharbada, horixe izango litzake bide on bat, gazteok batasuna lortzeko.

Ba dago, ba, gazteok, zeredozeren beharrezana. Lehena-gu, ilero ospatzen genduan gure eguna, ilaren bigarren igandean*: gure Jauna artu, eta gero meza ostean batzarra. Eta orain zer? Ez ote dogu inoiz baino premina gehiago, alkartuta jokatzeko? Horren gatxa ote da, ba, erri bateko gazteen batasuna? Orain egiten dogun baino ahalegin gehiago egiten ez dogun bitartean, ez da erraza izango.

Gontzotai

ANAITASUNA

BIZKAIA, Amabosterekoa, 7

Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasa.
Jabea: Kantauriko Frantzizkotar Irugarrendarrak, Durangon, Intxaurrondo, 3.
Idazkola ta banakola: Bengoetxe, 33-b. Galdakano. Tel. 396 eta 397.

XVIII-gn. urtea. 186 zenb. 1970, Apirilak 15

D. L. Bi. 1.753-1967.

Inprimatzen dau: Imprenta IDEAL-ek, Galdakanon, Bengoetxe, 70.

Irartzen dau: RALI,

Txalaparta otsa itz egina

Arze-ren ISTURITZE-tik TOLOSAN BARRU poesi liburuari, ohiko liburuetatik zeharo desbardina deritxat. Alde guztietatik desbardina. Horregaitik eskuartearen erabili ohi ditugun eskema arruntak ez jakuz gai behar bezala onartzeko, nola liburuaren tankera, nola poesiaren funtsa. Eskema horreek larriegiak ziran, poema liburu edozeinen konplejutasuna atxeman ahal izateko: poesi lirikua, ala epikua, poesi barria, ala zaharra. Eta nekez dikotomia klasiko horreetatik at aurreratzen gara. Are gehiago, ezagutu ditugu gerra ondorengo espainiar intelektual batzuek poesi lirikua, ez besterik, onartzen ez ebenak poesi jator bakarizat, ia larriegia zan dikotomia areago larriagotuz. Hareen aburuz ez zan poesi mota bat, edo bardina dana, epika poesi guztia derrigorrez txarra behar eukean.

Espainian bederen* gizarte-erako poesiari zor deusagu epika barri baten sortzea (ikus, esate baterako, Celayaren "Las resistencias del diamante" poema epiku luzea). Zorioneko berbiztea poesiaren erabarritzearen onerako.

Nire eritxiz ordea, eta arestian esan dodanez, bereizketa honek ez deusku gauza aundirik argitzen. Asiera beretik epika barriak aundi-itxurak baztertu zituan ezkeroz, urte gutxi barru, berezkoa eban zerbait bezala, kaleko gizon arruntaren neurria moldatu jakun, bide batez lirikari nagusitasuna ukatuz.

Euskal poesi barriaren, neurri aundian espainiar poesi horren ondorio dogun ezker, gauzak bardintsu joan ezik, joera hori radikalizatu egin dogu eta beharbada gehiegi luzatu bere bai. Ni neü, egia esateko, gure poesiaren radikalizazio horretaz etsita nengoan, hainbeste urtetan irauenez, ez baineutan ikusten urteerarik ezta aldaketa biderik bere. Eta ene baitan soluzino teorikuen bila nenbilela, ez neban beste biderik ikusten, gaurko joeraren kontrako mugimentu baten sortzea baino. Esate baterako, erromantizismo barri baten bidea urratzea.

Arze-ren liburuko zenbait poema nire teorien aurka datoz, eta ez dot damurik aitortzea. Bilduma honetan agiri diran iruzpalau poema konkrituak, bat-batekoak, zein baino zein beteak eta borobilak, ez dabe zerikusirik nik begizatzen neban poesi liriku barriarekin. Alderantziz, iragan urteetako anti-lirismo egoerak gerta eikean poesi konkriturako behar dan sensibildade berezia. Sensibildade aldetik ez dot somatzen halako alde aundirik bien artean. Uste honetan finkatzen nabe bildumako beste poema gehientsuenak.

Azalpen guzti hok, bestalde, liburuaren inguru-muruak besterik ez dabe ikututen.

Arze-ren poesi konkretua

Aukera bat egitera behartuko banindue, zalantzarik gabe poesi konkretuetara joko neuke itsu-itsuan. Estrenengo aldia da, euskeran horrelako zerbait ikusten dodala; eta, halan ta guztiz be, poema hok sasoi osokoak dirala

uste dot. Z-taren MAITASUN KANTUA-ri bereziki antologiazkoa deritxat. Hemen ez dogu badaezpadako poetaren soberazko esaldi totalik atxematzen ahal. Egiazko poemetan bezala, dana da beharrezko, edo obetoago esan, poema berak behar dauan egitura lortzen dau bete-betearen. Antolaketa grafikua bera be poemaren barne orekari moldatzen joko, doi-doi mugimentua jarraituaz flexibilitade aundiarekin.

Beste batean (GIZONA TA LANA...) alderantziz gertatzen jaku: "lana" itzarekin eraikitako gazteluaren ormarretan GIZONA atxiloturik datza, itorik. Beheraxeago "lana" ta "makina" nahasiaz lerro eta ritmo desbardinetan, alienazioaren sinbolu dan martilu aundi baten itxura bildurgarria artzen dau poemak. Poema honek "efekto" soil bortitz bat sarrerazo nahi leuke irakurlearen buru-muinetan, "a" bokalaren errepikaz baliaturik, makinaren etenbako ritmo monotonoaren otsa eragiteko. Hemen elemento formalak (bizpauru sustantivotan oinarriturik) dira poemaren zirkuitu sentimental sortarazoten dauana.

Poema konkretu bi honeen arteko diferentzi nabarmenak zerbait adierazoten deusku poesi mota barri honen aberastasunaz. OTX! ATX! UTX! itz-ikasketak eta NO TA TO zoragarriak uste horretan finkatzen nabe barriro.

Bachelard-en metodo kritiku berezia eta zorrotza beharko neuke, Z-taren MAITASUN KANTUA eta NO ta TO-ren interpretazio sakon bat egin ahal izateko. Harzabal-ek bigarren poema honetan, ohargabeen ala oharturik, suaren psykoanalysis sakon bat emoten deusku. Nekez aurkituko neuke Bachelard-en "le feu sexualisé" tesisa baieztuko leukean beste xerplo beteagorik literatura barriaren. NO ta TO-ek mundua baizen zaharra dan sexualidadeak lortutako suaren mito elementala berkeitzen dau. Eta ez ote da benetako poesiaren berezko zereginetakoren bat, nagusia beharbada, mito bihurturikako ideiekin zuzenki, errege bidez, komunikatzea? Harzabal-en poema konkretuok poesiaren iturburuetara jotzen dabe eta eldu bere bai askotan.

Bachelard apatu dogun ezker, ez ote eban honek Txillidaren burdin lanei buruz saiakera bat idatzi? Ba dago hemen, orain nekez bederen, somatzen dodan artuemon izkuturen bat...

Arze-ren poesi konkretua hain konkretua izanik, ez nintzake arrituko, luzaro gabe Z-taren MAITASUN KANTUA irudi bihurturik ikusiko bagendu; edo Orson Welles-en filma batean ikusten badogu Zeta zaharra zirrikitu aurrean zalantzan, Falstaff edo Ziripote edo Olentzaro edo Rabelais-en edozein gizatar, jakinduri zaharrez ornidutako irri ironikua begi nini eta ezpan muturrean daualarik, maitasun likitsetarako prest. Personaje guztiak ez badira behintzat LADY CHATTERLEY-ko John Thomas berbera, Lady Jane-n atea joka!!!

Mikel Lasa

Jaialdi baten joan-etorria

Joan dan martxoaren 22-an, igandean*, euskal kantari barrien saio bat entzun ahal izan zan Markinan. «Artibai», mendizale taldeak eratu eban, jendeari jaialdi bat eskainiaz*, bide batez diru apur bat ateratzeko, Oiz mendian mendizaleentzat egin nahi daben etxea jaso ahal izateko.

Jakina danez, kantariak abestuko dituen itzak, aurretiaz Udaltelean*. Información y Turismo-n eta Polizian aurkeztu* behar dira, behar diran baimenak lortzeko. Holan egin eben markinarrak. Ikusi zelan joan zan arazo hau.

Argoitia neba-arrebak, Ondarroatarrak, presentatu zituen sei abestietatik bost izan ziran onartuak: Olerkariaren abestia, Lili, Euskal aurrak, Arribedertzi Mirentxu, Zeinena da Euskera. Eta ezetzatua: Espetxean dagon gizona.

Txomin, Otxandiotarrak, presentatutakoetatik onartuak: Lorentzo ta Katalin, Itxastar aurrak, Handik hona, Txantxetan, Zugaz maite. Ezetzatua: Gosetea, Etzaiakoz garaituko, Makila zaharra, Zuri gazte, Amets bat, Esaidazu pintore.

«Itxaropen», Legazpiarrak, presentaturikoetatik baietza lortu ebenak: Maitasun bat, Mundu berri. Eta ezetza: Ez galde, Dudari.

Luis Amilibia, Zurautarrak, presentatutakoetatik onartuak izan ziran: Daliah, Entzun aizetan, Iturria, Usoa, Lore gorri, Sole mio. Ezetzatua: Inch Allah.

«Urretxindorrek», Bergaratarrak, baietza lortu eben, Ai ama-txo, Mendi puntatik, Iguriako boluan, Pake ta maitasunaren abes-

tientzat. Ezetza, Euskaldunak euskeraz kantua entzat.

«Unai» Azpeitiar bikotearen abestietatik baietza lortu ebenak: Mirentxu, Ezkilaren kantua, Zugaitik, Lore polit bat.

Natxo Bilbotarrari onartu eutsuezan: Keja ta promesa, Nere maiteari II, Larrosea, Jakin gura dot. Ezetzatu: Maldizio betikoa, Zergaitik zara zu mitozale, Laugarrenez, Nerea etorkizunaren aurrean, Nere maiteari I, Gazte baten ametsak, Inoren menpean, Ba dakizu non nagoen, eta Kristo, ni ta gizonak.

Euskal jai honen barri emon zanean, zenbait* jende boikot egin behar zala aditzera emon ei eban. Jokaera hau arrazoi bitan oinarritzen ei zan: bat, bizi garean une larri honetan mendian mendizaleentzat etxe bat jasotzea txantxetan ibiltea dala. Eta bi, abeslari saio honetan parte artzen ebenak era guztiz ezbardineko kantariak ziranez, entzuleak ez ebela ezelango ideia konkreturik irabaziko. Hau da, batzuek folklore zale utsak zirala, beste batzuek zirikatzaileak, beste batzuek instrumentistak eta beste norbait Carusoren bidekoa.

Dana dala, kantariak ez euken boikot honen barririk; eutzu-leak bere, ez dogu uste ezer ekienik; eta frontoia, hori bai, puntaraino beterik egoan. Eta, duda barik. «Artibai»-koei zorionak emon beharra dago.

Gauzak honetara diralarik, ez ote dira kantariak mahai baten inguruan jarri behar, arazo honeetaz mintzatzeko?

TXIKITO

Ikastolak, prolema latza

Aspaldi honetan artikulua ugari irakurri dogu ikastolei buruz. Ahopeko mintzaldietan ez dator antzua gai hori. Problema latza eta adar askokoa benetan, bere mamina lerro batzuetan emon nahi izateko, nahiz bat uste andikoena izan. Halan ta bere, ezin txarto ikusi entsegu horreetara josten dauanik. Hain korapilotsu dan ezker, sintesis bat egin leikeana (inoiz egin ahal izango ote da erabateko sintesis bat?) datorren bitartean eta hori gertuteko, askok eta askok alderdika jokatu beharko dabe.

Nahikoa dogu artikuluren batzuek irakurtea edo ikastolen bideak "zuzentzen" asi diranen jokabideari begiratzeta. Eta zer agertzen da? Hauxe:

- a) Andereño nahiz maisu batzuei, lepezintzailu, Maoren irudia ezarri eta kitto: horreek ez dira euskal irakasle izateko gauza. Eta: Kanpora hortik! Gurasoak dabe itza eskoletan.
- b) Orain arteko ikastolen bideak, gure errietako alkartasunaren etena sortu ei dabe: segregazio bide ei dira. Eta hori ezinezkoa da: eskola nazionalak irakasleekin artuemon gehiago behar da izan. Horretara ezker, utikan* orain arteko andereño eta ikastola-zuzendariak.
- a) Hain zeharo eta erabat —zirt zart— garbitu al daiteke prolema bat? Gurasoen eskubidea hau, irakasleena hau: hain mugatuak ote dira alderdi horreek? "Zelan" erakutsi, irakasleengatik da; "zer" erakutsi, barriz, gurasoena. "Zelan" erakusteak ez al daroa berarekin "zer" erakutsi? Eta "zer" erakusteak ez al daroa beragaz "zelan" erakutsi?
- b) Ikastolak segregazio bide dirala eta eskola nazionalak irakasleekin artuemon gehiago behar dala dala dinoenak, non daukez begiak? Gure arteko errealdadaren susmo txikiak ba al dabe? Zetarako eta zelan eta noiz sortu dira ikastolak? Eta zein egoeratan irauten dabe?

Eta hau bederen:* hori dinoenak, ze artuemon dauke irakasle horrekin, kristinau ikasbidea dala edo beste hainbat gauzatan dala edo bigarren mailako ikasketarako dala? Ze artuemon?

Amets uts izateko, ez al da tamaino aundi samarreko hori guztia?

- c) Eta andereño nahiz maisu, tituludun nahiz lagun-

tzaila, saihestu al leitekez, beste barik, ikastola lanbidetik?

- d) Ikastolak prolema badira, ez al da prolema hori garbitzen saiatu behar, ez zirt-zart, ez "ego dixi" batekin, alkarrizketa batez baina?
- e) Prolema honen jira-biran, prolemaren askatugura horretan ez al da agiri, zabal zabal, gure mundua morroitu nahian dabilen diruaren indarra? Nagusi, jaun eta jabe nor? Ahal dauana. Joko horixe berori gure arazo honetan.
- f) Eta arazo guzti honetan, okerrena ez al da, ikastolak Elizaren babesean jarri dirala-ta, erlejino ta moralaren eta ez dakit beste zein gauzaren izenean, okerbide ta nagusikeri-bide ta azpijoko horreetara jotea?

Non dago Vaticano II-ren irigitasuna? Non dago Paulo VI-ren eta Batzar Nagusiaren alkarrizketarako deia? Museo askotxo sortu ote dogun nago. Gure gazteriaren gogorkeria eta bakarkeria, elduak —ofizialki bakarrik, ez gizatasunez— gareanon gogorkeria, bakarkeria, ustekeria, nagusikeriatik ez ote datozan nago. Gogorkeriak gogorkeria dakarrela ez al dogu esaten ba?

Alkarrizketaren dialektika-bide baten aukerarik emoten ez badeutsagu gazteriari, zetan arritu, giza-mailen burrukaren dialektika-bidea dalako teoriara josten badau? Horrela, geuk erakutsia artzea besterik ez dabe egiten; eta esan bere esan behar da: bide bakarra dauke aukeran horrelako bizi-giroan.

Amaitzeko, hauxe bederen:* ez daigun gure jokabide hori kristinau erlejinoan tinkatu. Historian zehar izan dituan kruzadak eta erlejino guduak eta nagusikeriak nahiko ditu Elizak bere bizkar gain. Azken aldi honetan, Jainkoari esker, erlejino askatasunari buruzko agiri bat ezagutu dogu; "Gaudium et Spes" bat bere bai; alkarrizketari buruzko enziklika bat bere bai, Horreei esker, ba dakigu, ezin daikegula jokatu lehen bezala, kristinau ez diranei buruz; ba dakigu, kristinau ez diraneekin artuemonak euki daikeguzala eta euki behar ditugula; ba dakigu, biziera osoak alkarrizketa bat izan behar dauala.

Mintza gaitez gaxiago erlejinoaz eta maite daigun gehiago egia. Irigi daiguzan zertxobait gure museoak.

Dionisio Amundarain

Hippiak, gizarte aberatsetako problema larri bat

Gazteen artean kritikaturik badago, hippiak dira, gehien bat, aipatu eta kondenatuak. Roman Polanskiren andrea il ebenetik, hainbeste astakeria egin eta esan dira, hippiak gai artuta.

Hippiak, lehenengo ta behin, gazte bihurriak dira, konformagatxak eta, gainera, gehienetan bizitza eroso* eta nasai batean aziak. Baina gazte honek argiro ikusi dabe diru bizitza hori ustela zala, zoriona ezin erosi daitekeala, ezta saldu bere. Kapitalistak baietz esan arren, ez dabe sinesten diruak dana ekarri daitekeala; eta, horregaitik, uko egin deutsoe diruz erosten dan erosotasunari, eta pobreak bizitera abiatu dira.

Konturatu egin dira, ondo konturatu bere, estadu arerratuak izugarriko negozioak egiten dituela inoren gertan, horretarako armak salduaz. (USA-k Vietnamen, Inglaterrak Nigerian...). Eta ingeles eta amerikar jende prestuak eta langileak ondo bizi diran artean, hainbeste ilten dirala berorrei irabazpidea emoteko.

Ezetz osoa emon deutsoe ba gerrari, eta bakezale agertzen jakuz. Amodioa nahi dabe eta ez gerrarik.

Hippiak maitasun askatua onartzen dabe, eta euren akusatzaileei hauxe dinotsee: Bai, gu pekatariak gara, alkar maite eta ezkondu bage, neska mutilak oheratzen garealako; baina zer ote dira diruagaitik ezkontzen diranak? Eta ze moralpean bizi dira, pisu bat erosteko dirurik ez daukelako, ezin ezkondu daitekezanak? Zein da obe, zuen dirupeko moralala ala gure moral askatu hau?

Ez dabe esperantzarik bapere kapitalpeko gizarte honetan; eta, horregaitik, kapitalisten alde egin baino lehena, nahiago dabe lanik ez egitea, lurra landu, arte-lanak eta antzekoak izan ezik, biziteko preminarik bizienak betetzeko.

Alferrak ote dira hippiak? Askok baietz dinoe, baina ez legoke txarto euren arrazoiak entzutea. Zer da obe —esaten dabe hippiak— arma fabrika batean, detergente fabrika batean edo kafetegiko morroia izatea, ala lanik

bapere ez egitea? Armak egiten dituan langile "zintzoak" inoren odolez ateratzen dau bere irabazia; eta detergenteakaitik gure erriko urak eta ibaiak alferrik zikindu eta galdu egiten dira; kafetegietan ba ba dakigu zelako bizi ustela dagoan... Ez ote dira guztiok, egia galantak?

Hippiak benetan maite dituen gauzak, Izadiak berak emoten dituanak izaten dira: leku eder baten ikustea, erreka baten murmurioa, lore, baten usaina eta kolorea..., diruz ezin erosi daitekezanak. Honegaz kontra egiten deutsoe hippiak kapitalari. Ez, jaunak, ez, diruak ezin erosi daike dana, dinoe.

Baina kapitalak ba dauka bere indarra eta ahalmena. Aserre dao, bai, oso aserre gainera, gazte bihurri honekin; eta jo ta ke, errebetetan eta telebisinoaren bidez, entzute txarra emoten saiatzen da gorrotzo kapitala. Horregaitik, danetariko okerkeriak esaten ditu: drogalezalek dirala, maritxuak dirala, alferrak dirala, emakumeen antza daukela..., eta beste hainbeste txarrikeria.

Ez dago ukatzerik, egon daitekezala holako hippi drogalezale eta gaizto batzuek; baina gehienak ez dira horrelakoak.

Ibizan be argi ikusi zan, gehien protestatzen ebenak merkatariak, dendariak eta negoziadunak zirala, hippiak oso diru gutxi gastatzen ebelako. Horixe zan euren pekatu larriena, morala barik.

Azkenez, nik hauxe esan gura neuke. Hippien bide hori ez da egokiena, gizartea aldatzeko eta ontzeko, beharbada; baina gutxienez hippiak uko egiten deutsoe gizarte honi, eta horretan arrazoiak ez dabe falta. Al Fatah izeneko gerrilletan dagoan burrukalariak gogor kritikatu daitez euren gelditasunagaitik; baina ez dot pentsatzen, dirupeko bizitzan sartuta dagozan "arma-saltzaille" eta bizio-saltzaille askok zer esanik daukenik.

Hippien bidea ona ez bada, beste askorena bere ez da ohea.

Xabier Kintana

Abereak eta Burdinak

IPAR EUSKALERRITIK

GURE EKONOMIAREN IRU PUNTU

(Azken zatia)

Geroari buruz zer egin

Esan daigun, lehenengo ta behin, behar beharrezkoa dala guretzat industria baten sortzea gure aldean. Traba eta neke aundiak ditugula, seguru. Baina ez da ezinezko gauza. Lantegi barriak jartzeko, gogo barri bat, izpiritu barri bat gure erriaren alde sortu behar dogu. Lan hau asia da. Gero politika industrial bat sortu behar; eta honeri buruz, zenbait* ideia aipatu baino ez dogu egingo:

- psikologiaren aldetik, euskaldunei konpreni erazo behar deutsegu, industriak ez deusola turismoari kalterik egiten, eta ez dabela "gorrien" bildurrean bizi behar, industria aipatzean.
- industrialei erakutsi, jende serioak gareala, lan egiteko; eta industriaren aldeko giro bat sortu (batasun ekonomikoak, eskola teknikoak, esposizioak, eta abar).
- diru aldetik, asieran, diru laguntzak sortu; eta industria eremuak "zone industrielle" edo "poligono industrial"-ak jarri.
- demografiaren aldetik, zenbat enpleguren beharri-zana dogun atera urtero.
- kanpoan diran euskaldun industrialak edo industrietako buruzagiak konturatu eragin Euskalerrriaren beharriaz.
- batasun bat sortu, egiteko horreek zuzendu eta organizatzeko.
- gure ekipamentua obatu, bideen aldetik, telefono aldetik, eta abar.

Beharrezkoa da Euskalerra barrukoarentzat Iruñetik Baionara autobidea absolutuki egitea. Hemen agertzen dogu orain Baionako portuaren mugimentua, portu honen inguruan, eta honeri esker, gure ustez, beste inon baino errazago sortu baikeinke* industria.

Baionako portuaren mugimentua:

1958	714.000 tonelada.
1959	975.000 t.
1960	1.335.000 t.
1961	1.775.000 t.
1962	1.520.000 t.
1963	2.100.000 t.
1964	2.266.893 t.
1965	1.988.183 t.
1967	2.367.608 t.

1961 eta 1962 artean aldakuntza aundia izan da, Bokaleko Laba Aundiak zarratutean. Baina artoari esker, portuko mugimentua gehitu egin da. Harrezkero, Lacq-eko azufreari esker, gorantz doa beti. Baionako portua ez da aundia; baina, itsasgizonak dinoenez, oso ederto antolatua, guztiz praktikoa. Denbora gutxian, gauza asko karga eta deskargatu ondoren, barriri joan leiteke itsasora.

Idazlan hau ez geunke amaitu gura, bide batez, gure Ego Aldeko anaiei dei bat egin barik. Hainbeste industria eta industriako buruzagi dituan Erriak ez leuke indar bat egin ahal izango Ipar Alderantz? Hemen gazte asko dago lanaren zain, lanbide baten atzetik. Erri askok laguntza aundiak egiten deutsez lantegi barriei... eta, gero, Ipar Aldea ez da ala Europarantzako lehenengo pausua?

Zuen begira gagoz.

III. EGO ALDEAREKIN ARTUEMONAK (KOMERTZIOAN)

Hemen presentatzen ditugun zifrak, Domintxaine-ko euskaldun jakintsu batek, Lafaurie jaunak, egindako estudio batetatik atera doguz. Jaun honek, G.E.T.I.S. batasunaren laguntzarekin egin dau azterketa baliotsu hau. Hemen jartzen diran zifrak, "Basses-Pyrénées" (B.P.) departamentu osoarentzako eginak izan dira. Hona, laburki, zer irakurten dogun estudio horretan.

1. Ego Alde guztia, erosle aundia da B.P. departamentuarentzako.

Hona hemen Aduanak emondako estadistikak, B.P.-tik Ego Alderako esportazioentzako:

	1965	1966	1967	67/65
Balioa (mila frankotan)	68.600	108.900	115.000	68 %
Zenbat (toneladatan)	191.871	335.600	420.000	120 %

B.P. eskualdeak* saltzen dau Ego Aldera, erosten dauan baino doblea gehiago. B.P. eskualdearentzat, Ego Aldea bigarren eroslea da, Alemaniaren atzetik. B.P. eskualdearen esportazio guztietatik 15 % Ego Aldera eginak dira.

2. B.P. cuskaldeak, Ego Aldeari buruz, erri atzeratu bat bezala jokutzen dau, alkarren arteko artuemonetan.

Gauza edo ekei naturalak saltzen ditu eta gauza landuak edo makinak erosten. Izan be, gehienik saltzen dituan gauzak dira: artoa (250.000 tonelada, 76 miloe franko, 1967-an), egurra (55.000 tonelada), kimikako ekeiak (25.000 tonelada, 13 miloe franko), azufrea (36.000 tonelada, 7 miloe franko), aluminioa (18.000 tonelada, 7 miloe franko), eta gauza landu gutxi.

Erosten ditu, barriz, mekanikak, zapatak, oihalak, mubleak eta frutak.

Hona hemen saleroste horren agiri labur bat:

	Saltzeak Ego Aldera	Ekartzeak Ego Aldetik
Laborantzako gauzak	—	—
Alimentazinoak gauzak	42 %	58 %
Azufrea, mineralak	16 %	3 %
Kimikako ekeiak	20 %	2 %
Gauza landuak	22 %	37 %

Salerosteen estruktura hori ikusten da oraindik erosi edo saldatuko tonelada bakoitzaren prezioan.

Ego Aldera joaten dan toneladaren prezioa: 332 franko.

Ego Aldetik etorten dan toneladaren prezioa: 910 franko.

Iru arrazoi ba dirala hau esplikatzeko, iruditzen jako Lafaurie jaunari, bere inkesta* egin ondoren:

- B.P. eskualdeko* industrialak ez dabe nahiko aztertzen Ego Aldeko merkatuta.
- B.P. eskualdea ez da nahiko industrializatua (irutatik batek lan egiten dau industrian: 130.000 langiletatik, 68.000 bakarrik).
- B.P. eskualdeko industriako buruzagiñ informazioa oso txarra da, eta euren "ustekeriak" aundiak Ego Aldeari buruz.

3. Geroari buruz: Ego Aldearen Merkatu Batuan sartzea.

Antza danez, oraingo alkarrizketen arabera* (eta Lafaurie jaunak, bai Parisen bai Bruselaren oso urretik segitzen ditu alkarrizketa horreek), Merkatu Batuaren eta Ego Aldearen arteko akordioaren lehenengo pausua edo mailak 6 urte iraun leikee; holan alde biak obeto prepara leitekez integrazino oso baterako.

Zer esan daiteke lehenengo akordio horretaz?

- Ekonomiako muga asko ezereztuak izan leitekez industriako gauzentzat, 6 urte horreetan.
- Azkenean, Lafaurie jaunaren ustez, B.P. eskualdearentzako partida gatxa izango da muga irigitze hori; baina mesede egingo deutso eskualde honen ekonomari. Berak dinoenez, oso urretik aztertu beharko dira, lagundu edo zaindu beharko diran sektoreak eta lantegiak.
- B.P. eskualdearen industriarentzako merkatua aunditu egingo da; eta, preminatsuenana dana, eskualde hau ez da gehiago Europaren punta bat izango; eta bai, hainbeste aldiz bere kondairan izan dan bezala, Iparretik Ego Alderako pasatoki bat, eta aldrebes.

RAMUNTXXO CAMBLONG

ONGARRI Pentzuak

S A R B - en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsutu ondo zure ganadua.
Burubako egina, alperreko ekina.
ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.
ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat.

Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:

ONGARRI, S. A.

piensos compuestos

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Telefono 11



IMPRENTA IDEAL

idazkirik onenen

zerbitzurako irarkola

Bengoetxe - GALDAKANO

ANDONI-ren

DISKO BARRIA

- 1 KARRAXI**
- 2 ZURE ULEAK**

Diskoetxe guztietan salgai

Eskatu: Av. Ejército, 18, 3 - Bilbao-14

FUNCOR, S. C. I.

Gaurko baserritarrak behar dituan

Trituradora - Errota - Nahastaile - Zerra - Uraga - Uraska


Europako aurrerapenik onenak, hemengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta FUNCOR

ELORRIO - Telefono 114

ANAITASUNA 9

Sony da
ametsaren izena



**Telebistarik
arinena,
Eskurakoiena
(Atzamar bategaz
eustekoa)**

SONY edozein tokitarako
da

SONY, 4 kilo terdikoa
SONY, 9 arrako pantaila-
laduna

SONY, iru senti-giltza-
duna

SONY, aurrean jarritako
abots gehitzaile duna

SONY, tximist-indarrez
nahiz bateriaz
erabiltekoa

SONY, -k lau letra ditu:

SONY

Bilboko ordezkari: **J. M. Lara** - Fica, 8 - Tel. 23 96 42

Donostiako ordezkari: **A. Mendizabal Obanos** - Peña y Goñi, 5 - Tel. 10 811

*Division Aud visual: Telebista aparatuak, magnetofono ta
videotape-rako ornidurak.*

Division Sobax: Elektro kalkulatuak eskurakoak.

BIZKAIKO AURRESTI KUTXAK Bilbon eta Probintzi guztian, laguntzarik zabalena
emoten dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zure dirugordetzerako:

Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao

Teléfono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90

URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako erririk naguzienetan 70 etxeordezko

Madriko aientzia: I. C. C. A. Alcala 27

Tel. 2 21 49 95

ANAITASUNA

ANAITASUNA 10

I. BERBAK

(Ale honeitan izartxu bategaz agertzen diranak)

Bizkaierazkoak

ARRO, *cuenca de río*.
ARROBI, *cantera*.
AURKEZTU, presentatu.
AUTESKUNDE, elezino.
BAIKEINKKE, bait geinke, geinke ta.
BAITABE, bait dabe, dabe ta.

Euskera batukoak

ALEGIA, hau da, *a saber*.
ARE, oraindino.
AREATZA, *Villaro*.
ARI IZAN, jardun.
BAITA, bait da, da ta.
BAITITU, bait ditu, ditu ta.
BEDEREN, gutxienez.

Beste euskalkietakoak

ADOS, *conjforme*.
AHOLKU, *consejo*.

BAITZAN, bait zan, zan eta.
BOKART, antxoba.
EGALUZE, atun klase bat, *bonito*.
EROSO, *cómodo*.
GORRI, arrain pilo, kolore gorrizkea.
IRAULTZA, *revolución*.
IRAULTZAILA, *revolucionario*.
ITUNBEN, *acuerdo*.

BERAZ, hori dala ta, *por consiguiente*.
BEREHALA, behingoan.
DATZA, dago, *yace*. (Etzan aditzaren forma.)
EKAIN, bagil, *junio*.
ESKAINI, eskini, eskeini, *ofrecer*.
ETSI, *perder la esperanza*.
HAZIL, zemendi, *noviembre*.
HELBURU, *fin, objetivo*.

AZARO, hazil, *noviembre*.
ARABERA, arauera, *según*.
ESKUALDE, *comarca*.
INKESTA, *encuesta*.

JARITXI, lortu.
OLA, lantegi, fabrika.
ORTOZIK, oinutsik.
UDAL, *ayuntamiento*.
UDALETXE, *casa ayuntamiento*.
UGARTE, *isla*.
URDURI, artaga, *inquieto*.
UTIKAN, *a paseo, al traste*.

IGANDE, domeka.
MEMENTO, momentu.
MENDE, *siglo*.
OTSAIL, zezeil, *febrero*.
SETATSU, *tenaz*.
UZTAIL, *julio*.
XEHETASUN, *detalle*.
ZENBAIT, batzuek.

JADANIK, *ya*.
JAZARKATU, *perseguir, acosar*.
OROKAR, *general*.
TRONPATU, *equivocarse*.

II. IDAZTEKO MODUA

Txarto:

"Correo Español"-ek argi ta garbi esan euskun, bide biotarik bat artu behar dogula: Greziako Koronelen bidea ala Europako bidea.

Baita be ikastaroan zehar izan doguz San Martin eta Torrealda jaunen itzaldiak.

Frontoia puntararte beteta egoan.

Ondo:

"Correo Español"-ek argi ta garbi esan euskun, bide biotarik bat artu behar dogula: Greziako Koronelen bidea edo Europako bidea.

Baita San Martin eta Torrealda jaunen itzaldiak be izan doguz ikastaroan zehar.

Frontoia puntaraino beteta egoan.

Bokart arraintzearen eraketea

Udabarrian izaten da bokart kosterea. Iru ilabete urte guztian. Eta iru ilabete horreetan arrapatu behar da ahal dan bokart guztia. Konserba fabrikak erosten dabe bokart hori, salazola eta filetea egiteko. Gehiena exportazinarako, batez bere Italiara.

Azkenengo amar urteotan, goraka joan da bokartaren inportantzia arraintzearen ekonomian. 1960-an iru peseta balio eban kiloak, 1965-ean 9 peseta, eta igaz 36 peseta.

Beste alderdi batetik, egaluzetarako* bibero sistema sartu zan ezkerortik, urte osoan dauke gure arraintzaleak bokartaren beharrezana, arrain hori karnada bizitzat erabilteko. Bajurako ontziak, nahi ta nahi ez, bokartaren dependentsiapean dagoz gaur egunean.

Arraintzearen bildurra

Baina gorakada arrigarri honen ondoan, bildur eragiteko beherakada bat be ba dauka bokartak: produzinoarena.

Hain zuzen bere, 1965-erarte, gero ta gehiago arrapatu zan; baina harrezkeroko lau urte honeetan, beherantz joan da produzino hau. 1969-an, beherakada hori ehuneko 35-ekoa izango zalakoan nago. Ez da arritzekoa, ba, arraintzearen bildurra, arrain hau izutu, aldendu edo bapeztuko ez ote dan. Hori dala ta, kosta guztian eztabaida gogorra sortu da: ea zegaitik izan leiteken bokartaren urritzea.

Eritxiak

Honetan, eritxiak ez bardinak dira.

Bizkaitarrok eta Montañesak (Sananderekoak), arrain honeri larregi jazarkatzen* deutzagula dinogu, udabarrian, udan eta neguan. Eta horregaitik atsedendaldi bat emon behar deutzagula, neguan debekaldi bat jarriaz.

Giputzak, ostera, neguko bokarta eta udabarrikoa diferentek dirala dinoe, eta ez dogula ezer egingo neguko debekaldi horregaz.

1968-an, Kantauri itsasoko arraintzaleak Madrilen batu ziran, gai honeri buruz erabagiak artzeko, baina ez zan ezer lortu.

Orain, Dirección General de Pesca-k artu dau aria problema honetan, aipatu dogun debekaldia ipiniaz, eta egaluzetan* biberoakaz joatea abuztuaren 15-erarte debekatuaz.

Legearen mamina

Hona hemen legeak dinoana:

Kantauri itsasoko bokart kostereak beherakada aundia egin dau azken urte honeetan, eta jazoera horrek bidezko artegatasuna sortarazo dau arraintzearen artean. Bokartaren beherakada hau, atunetako kosteran karnada bizia erabilteagaz batera gertatu da.

Arrain mota honeri urte guztian zehar egiten jakon explotazioak, lagundu egin deutso, dudarik bage, itsaso honetako bokart gorrien* urritzeari.

Bestalde, bokart gorrien urritze honek zerikusia euki leike, egaluzea gure kostara ez urreratuteaz be.

Urritze horren arrazoi bakarrak honek dirala ezin leiteke esan; baina oso bidezkoa dirudi, experimentu modura, neurri batzuek artzea, arrain hau jagoteko eta, aldi berean, atunetako kosteran bokarta karnada bizitzat erabilteak egin leiken efektua ezagutzeko.

Honegaitik aginduten dogu:

Lehenengo: Experimentu modura, bokartaren arraintzarako debekaldi bat jartzen da. Ipar eta Noroeste kostaldeetan, azaroaren* lehenengotik otsailaren* azkenerarte, urte bakoitzean.

Bigarren: Experimentu modura hauxe be, debekatu egiten da karnada bizia egaluzetarako erabiltea, atun kosterearen asieratik abuztuaren 15-erarte, urte bakoitzean.

Halan bere, zimarroia (egalaburra) arrapatu leiteke karnada biziagaz, kosterearen asieratik abuztuaren 15-erarte, bokarta barik, beste edozein arrain mota karnadatzat erabili ezkeroko.

Artza

MARKINA

Pasaiko ikastolako umeak, uda denboran, Markinara etorteko ei dira. Merzedeko ikastetxean egongo litzakez. Oraindino gauza zihurra izan ez arren, laster erabagiteko ei da.

Baita Santurtzeko ikastolako umeak be Markinan, Etxebarrin, Bolibarren eta eskualde* honetako beste erri batzuetan egon nahi dabe datorren udan. Honek, taldean barik, bakoitza etxe baten egongo da, etxe horretakoekin euskera utsean eginaz, euskeraz ondo ikasteko.

Santurtzeko neskato nahiz mutiko honeetarikoren bat artu nahi dauanak esan beio "Zerutxu" alkarteko norbaiteri. Amoro-ton, esate baterako, lehendik egin dabe hori; ta gehien gehienak oso pozik dagoz.

— 0 —

Erriko kristinau soilak jo ta ke ari* dira lanean, gaurko eliz-giro barriztatuan sartzeko. Amabostean behin izaten ditue euren batzarrak, bertoko abade, erlijioso ta monja batzuek be tarteko dirala.

Gai sakonak erabili dira, bai ahotik ahora eta bai eskutitz baten bidez. Erriko kristinau soilak garbi azaldu dabez euren kezka ta asmoak. Beste batzuen artean hauxe: Markinan, iru elizaren inguruan banaturik agertzen ei da kristinau jendea. Batasun gehiago nahi da, bakoitza bere elizarantz bakarrik begira egon barik.

Kezka eder honeri erantzuna emonaz, Aste Santuko elizkizunetan batasun bidetik abiatu dira, ta gogoz gainera. Orain arte bakarka atondu izan dira gure elizetako elizkizunak. Aurten, alkarregaz aurretiaz adituta, egitarau bakarra zabaldu da danentzat, orduei, elizei ta izkuntzari dagokioen aldetik, ahalik eta aukerarik gehien emonaz.

Irukote

LEA - ARTIBAI (2)

Muditibar (Arbatzegi-Gerrikaitz)

24,50 km.² ta 1.045 bizilagun. Bere auzoak: Arbatzegi, Berreño-Aldaka, Gerrika, Gerrikaitz, Muditibar eta Totorika. 1882 urterarte, erri bi ziran: bata Gerrikaitz, 1366 urtean Don Tello Bizkaiko jaunak sortutako uria; ta bestea, Arbatzegi izeneko elexaldea. 1545 urterarte, Arbatzegi tokian, Urrutxu alderantz aurkitzen zan parrokia; gero, erdirago behar zala ta, Muditibarrera jaitsi eben. Amaika aldiz aipatzen da Muditibar izena, Gerrikaizko uria sortu zanean; beraz*, uriaren izena Muditibar baldin bazan, eta elexaldea Arbatzegitik Muditibarrera aldatu bazan, erri biak alkartu ziranean izen hau artzea izango zan egokia; gainera, bertako ta inguruko euskaldunak halan deitzen deutsoe. Baserri ekonomiakoa da Lea artoa* asten dan herri hau, bizilagunez beherantz doana. Oizko mendi gaina bere barrutian dago, eta baita hain entzute aundiko dan San Kristobal ermitea bere. Bertan dago Bizkaiko frontoirik ederrenetarikoa.

Murelaga

25,22 km.² ta 996 bizilagun. Bere auzoak: Aulestia (erriburua), Ibarrola, Urriola, Narea, San Anton, Goierri, Malax eta Zuberu. Hemen bere, goian aurkitzen zan parrokia, Murelagan; eta egokiago zalako, ibarrera jaitsi eben, Aulestiako torre etxearen ondora. Horregaitik, nahiz eta lehenengo tokiko izena eroan, erri honeri gaur Aulestia deitzen jako. Orain ehun urte, 1.419 bizilagun eukazan; beraz*, beharakada anditxo egin dau. Gehiena, baserri ekonomiari lotua. Ba dagoz, horregaitino, arrobi* eder batzuek, bere barrutian dagoan Santa Eufemia ermita entzutsuaren inguruan. Erri honetako sementa zan Martin Basabe, XVII mendearen* asierako irudigilea; Getariako parrokian eta Bilboko San Antonen dagozan irudi batzuek, bereak dira. Bertakoa zan baita Diego Goitia jesuitea bere, XVIII mendeko euskal idazlea, nahiz eta zoritxarrez bere lanak non diran jakin ez.

Gizaburuaga

6,33 km.² ta 249 bizilagun. Bere auzoak: erriburua, Lasier eta Okamika. Orain mende* bat, 338 bizilagun eukazan. Gaur Bizkaiko erririk txikienetarikoa da, eta urteko diru presupostorik urriena daukana. Oibar izeneko Andra Mari bat dago erri honetan. Antzinako oletatik* ospetsuenetariko bat be ba dauka, Bengolea izeneko. Bertako sementa zan XV mendeko teologu aundia, Okamikako Lope, Alemaniako Kolonian il zana. Baserri ekonomiari lotua, beste Lea ibaiarrokero erriren antzera, honek be seme ugari ditu Amerika ta Australian.

Amoroto

13,36 km.² ta 610 bizilagun. Bere auzoak: erriburua, Odiaga, Urrutia ta Ugaran-Oleta. Baserri ekonomiari lotua, nahiz eta Ugaran-Oleta inguruan industriarako toki ederrak euki, bizilagunez urritzen doa. Bertako sementa zan Jose Andres Atxurra, 1796 urtean Mexicoko Trujillon apezpiku izan zana. 1882 urtean, erri honen barrutian Atxurra izeneko koba aurkitu zan, 80 metro luzeran eta 7 zabaleran dituana.

Izpazter

22,68 km.² ta 965 bizilagun. Bere auzoak: Arropain, Artika, Kortazar, Barainka, Kurtziaga, Gallette, Gardata, Larrinaga, Mendatzona, Solarte, Soluane ta erriburua. Bere lurraren 84 % pinudiak betetzen dabe. Baserriari ta itsasgizon izateari dago lotua bere ekonomia. Bertako sementa da Gabika txirrindulari entzutsua.

Mendexa

6,89 km.² ta 421 bizilagun. Bere auzoak: Zelaia (erriburua), Iturrate, Leagi ta Likona. Azkenengo auzo hau izan ezik, beste irurak baserritarrak dira. Likonan aurkitzen da Karraspio izeneko ondartzta, udatiarren txaletz inguratua. Erri honek bere turismo aberastasia ez dau beretzat ondo planteatu, ezta erritik Ondarroara bide bat egiteak ze mesede ekarriko leuskion.

Lekeitio

1,77 km.² ta 5.834 bizilagun. Zabaleraz Bizkaian azkenbigarrena, ez dauka auzorik eukiteko lekurik. Lea ibaia uri honen eta Mendexa bitartean itsasoratzen da, San Nikolas ugartearen* aurrera. Arraintza ekonomian Bizkaian irugarrena da, Ondarroa ta Bermeoren ondoren. Errialde guztiko arrain produzinoan ehuneko 10,12 emon izan dau; baina azkenengo amar urteotan ehuneko 22-ko beherakadea egin dau. Bien bitartean turismoa gehitu jako; eta Bilbotik kanpo lujozko hotel bakarra bertan dago, Uribarren jau-

regian "Hostal de la Emperatriz" izenagaz. Bizkaiko elizarik ederrena dauka, gotiko tankerakoa; eta batez bere erretablea, 1508-an egindakoa, oboerenetarikotzat jotzen da. Bertako sementa zan Azkue abade jauna, Euskaltzaindiaren sortzailetakoa ta lehenengo lehendakaria, euskal kultura arloan ikaragarritzko lana egindakoa. Uri hau 1325 urtean sortua da.

Zenarrutza

19,22 km.² ta 807 bizilagun. Bere auzoak: Arta, Bolibar (erriburua), Goierria, Zenarrutza, Zeniga ta Ziarregi. Orain mende* bat, 1051 bizilagun zituan. Zenarrutzako kolejiatak, Bizkaian bakarrak, emoten deutso erri honi bere izena. Orain urte bi, 1.000 urte bete ziran, kolejiata sortu zala; eta jazoera honi ez jakon aipamenik bere egin, beste munduko edozein tokitan holako gomutapenak egiten badira bere. Arte ta kondaira aldetik balio askokoa, hor dago, barrizatze lan motelegi batzuek egundo ez dirala amaitzen. Erriburukoa, Bolibarkoa, zan jatorriz Simon Bolibar, Ameriketako askatzaile parebakoa. Orain urte bete, erriko arazoentzako ardurabakotasun andi bategaz, erri honek bere nortasuna galdu dau, Markina-Xemeinek bereganatuaz. Baserri ekonomiaduna, ba dau arraintza deribaduetako ola* bat.

Etzebarria

17,74 km.² ta 976 bizilagun. Bere auzoak: Altzaga, Aulestia, Gakartza, Unamuntzaga ta San Andres-Etzebarria edo erriburua. Orain mende* bat, 1.131 bizilagun zituan. Baserri ekonomiaduna izan arren, bere zelai ederrak ba dau industria aukera be, Eibarrerako bidea zabaldu ondoren. Ba dira, etorkizun honi begira, eztabaida ugari. Euskal kirolari askoko erria, pelotari, probalari, arrijasotzaile ta beste.

Markina-Xemein

44,65 km.² ta 4.302 bizilagun. Bere auzoak: Amalloa, Barinaga, Ilunzar, Iturreta, Meabe, Murua, Urberuaga ta uria. Lehen udal* bi ziran; baina hain nahastuak, inok ez eukan igartzerik, noiz Markinan eta noiz Xemeinen egoan; eta azkenean alkatzea erabagi eben, ia orain 20 urte. Markina, eskualde* guzti honen uriburua, 1355 urtean sortu zan. Ba dauka buru izate honek, aundiki familiak emoten deutsoen señoiritotasuntxo. Xemeingo parrokia, Bizkaiko aundienerarikoa da. Bere auzoetatik bat, Barinaga, "anteiglesia" mailakoa da; baina, maila hau euki arren, nortasunik ez dauka. Ola* batzuek euki arren, lantegiak kontatuta (ogetit gora), baserri asko ditu; ikustea baino ez dago, bere lehen aipatu diran bizilagunetatik 2.878 dira uritarrak eta 1.424 baserritarrak. Aurreragoko idazlanean aipatu genduzan uriburu izatearen bere xehetasun* batzuek; eta ez goaz orain barru esatera. Bakarrak esan gura dogu, gure uestez, buru izateaz, zelai eder eukiteaz, eta Eibar, Elgoibar, Durango ta Ondarroa bitartean egoteaz baliatuko dala, eta desarroilo egoki ta nortasundun bat jaritxiko* dauala.

Berriatua

19,85 km.² ta 1.580 bizilagun. Bere auzoak: Asterrika, Madalena, Mereludi ta erriburua. Baserriz aberatsa, sagardoarekin entzutsua, alboko Ondarroa uriazag tirabiran dabil, bere nortasuna galtzea ez gurarik. Ondarroa, Madalena auzoari begira egon da beti, bere zabaltzerako beharrezko dauala uste izanik; baina gauza bat da auzo bat kentzea eta beste bat erri guztia irunstea. Artibai ibaiaren girabiretan, torre-etxe zahar eta ortu eder ba ditu Berriatua honek.

Ondarroa

3,61 km.² ta 8.365 bizilagun. Uriaren sarreran Erreterria auzoa dau, ta Arno mendi alderantz Gorozikako enklabea. 1327 urtean sortu zan uri legez. Arrantzale erririk bada, Ondarroa dogu bat; azkeneko estadistikak dinoskuenez, Bizkaiko lehenengoa, Bermeogaz eztabaidan. Uda denboran turismo erria be ba da, baina bere arraintza ekonomia ahaztu barik. Erri urduria*, gaur gure munduak eta batez bere gure Erriak daroan iraultza* preminari gogorren eusten deutsona. Eukiko ditu bere errakuntzak; baina lanean diharduanarenak izango dira, eta teoriakeriaren baretasunean egon gura ez dauanarenak. Izkuntzari beste Euskalerriko edozein urik baino sendoago eusten deutso Domingo Agirrerren erri honek. Arraintza estadistikak aurreragoko lanean aipatu diran ezkerro, han ikusi leike irakurleak ondarroarren langiletasuna.